



[www.pixkanakakaskari.org/lanaur](http://www.pixkanakakaskari.org/lanaur)

**Merkatuko erreferentziak**



Eurostoxx50: **-%19,7**  
Ibex35: **-%7,06**  
Bonoa 10urte: %2,45  
KPI: %3,8 (maiatza)

**2022 metatutako emaitza**

**-%7,54**

**Zorroaren banaketa**

**Err. finkoa** %61  
**Err. aldatkorra** %33,4  
**Inb. altern.** %5,6



Ekaina 2022

**Falta zitzaiguna...**

Joan den hilean burtsen lurreratze leunaz hitz egin genuen, baina hilabete honetan merkatuak pikutara joan dira.

Burtsek behera egin dute eta interes-tasak urteetan ikusi ez ditugun mailetara igo dira. Analistak atzeraldiaz hitz egiten hasi dira, eta udazken mugitua izango dugula. Gogor heldu beharko dugu ekaitzari aurre egiteko.

Uda ona pasa!



**Gure BGAEen kudeaketa**

Merkatuak azken hilabete hauetan ez dira atsedetik ematen ari, gainera aurreikuspenak ez dira onak epe laburrean, baina Lanaur HIRU epe luzeko inbertsio-epe batekin kudeatzen da (18 eta 20 urteko erreferentziarekin) eta hauek dira kudeaketa ildoak.

- Errenta aldatkorra:** posizioa handitzen jarraitzen dugu, nahiz eta egungo erorketek zorroaren balorazioari kalte egiten dioten, epe luzerako estrategian zehaztutako esposizioa lortzeko inbertsioak egiten jarraitzen dugu.
- Errenta finkoa:** interesen igoerarekin, gure errenta finkoko zorroaren balorazioak sufritu egiten du, baina aukerak sortzen dira epemugara iristen diren inbertsioak interes tasa altuagoetan berritzeko eta iraupena handitzeko.
- Inbertsio alternatiboa:** hemen ere posizioa handitzen dugu. Inbertsio alternatiboak merkatuetatik deskorrelazioa eragiten du, besteak beste, epe luzera inbertitzeagatik likidezia-primek esker.
- Gure BGAEak sarrera bermatuak ditu:** ekarpenen egutegi zehatz bat dugu, merkatuen mende ez dagoena eta posizioak desegin behar izan gabe inbertsioak egiteko aukera ematen diguna.



PKk sinatutako Kutxabanken III. Hitzarmen Kolektiboan jasotakoaren ondorioz, Kutxabankek 5 milioi euro inguru eman behar dizkio Lanaur HIRU urtean (3.400€ baino gehiago langile bakoitzeko).